

Kotizatu gabekoen pentsioaren (KGP) etxebizitzako osagarria

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Aurkezteko epea Dagokion urte osoan eska daiteke

Helburua

Kotizatu gabekoen pentsioa (KGP) osatzen duen laguntza ekonomikoa da eta errentan bizi direnei ematen zaie.

Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza Nagusia
- Plangintzako, Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zerbitzua

Nori zuzenduta

Errentan bizi diren kotizatu gabeko pentsioaren hartzaileak.

Baldintzak

- Kotizatu gabekoen pentsioa jasotzea.
- Jabetzan etxebizitzarik ez edukitzea.
- Errenta kontratua edukitzea, gutxienez urte baterako.
- Ohiko bizilekua errentako etxebizitza izatea eta etxebizitza horretan 6 hilabetez bizi izatea eskaera egin aurretik.
- Errentan hartutako etxebizitzaren jabea ez izatea maizterren ahaide hirugarren mailara arte ez eta ezkontidea edo ezkontzaren antzeko maitasunezko harreman bateko bikotekidea.

Zenbatekoa

525 euro, urteko ordainketa bakarrean.

Ordaintzeko modua

Eskaeran adierazten den eskatzailearen kontuan.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Eskaera orria](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskaera orria behar bezala beteta eta eskatzaileak sinatuta.
- Errenta kontratuaren fotokopia.
- Azken sei hilabetetako ordainketen justifikazioa

Eskaera moduak

» Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

[Eskaera aurkeztuko da pertsona bizi den udalerriko Gizarte Zerbitzuetan.](#)

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

3 hilabete.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

» Ohiko postaz

ARAUDIA

[1191/2012 Errege Dekretua](#), 2012ko abuztuaren 3koa, Gizarte Segurantzako kotizatu gabekoen modalitateko pentsiodunei etxebizitza alokatzeko pentsioaren osagarria aitortzeko arauak ezartzen dituena. (BOE, 2012ko abuztuaren 4koa. 186 zenbakia)

[746/2016 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa](#), 2017rako Gizarte Segurantzako pentsioak eta beste zenbait prestazio publiko errebalorizatzen dituena.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

Estatuak laguntza hau urtero onartu behar du.